


Helduen Literatura

Dantzaldia
Irene Nemirovsky.
Itzultzailea: Eider Rodriguez.
txalaparta, 2006



Gogoia sartzen dizu

IRENE NEMIROVSKYREN lanik eza-gunena da, zalantzarik gabe, *Suite frantsesa*. Rafael Chirbesek orriotan bertan seinatu zigun nobelatzarra; norbere ipurdia salbatzeko karrera horretan, gure garaiaz ere ari zela-koan: “Gerretan, etsaiaren aurrean gertatzen diren ihesaldi handiak duintasun ezaren eredu dira, edozein zapaltzen da, edozein entregatzen da norbera salbatzeagatik. Irakurri duzu Irene Nemirovskyren eleberri zoragarri hori, *Suite française*, alemaniarren mehatxuaren aurrean Parisetik nola ihes egiten duen? Bada, horrelako zerbait, baina ustezko bake sozialaren garaian”.

Euskaraz, haatik, *Dantzaldiarekin* egin zuen 2006an debuta –gerora etorri dira *Arimen maisua*, *Suite frantsesa* bera, *Birjinak* eta *Odolaren sua*–. Euskaraz debuta, euskalduna zenak. Euskalduna baitzen Nemirovsky, berak eta bere biografoek esaten dutena egia bada behintzat –eta ez dakit, hartara, manualetan-eta zergatik ez duten sartzen frantsesaz idatzi zuten idazle euskaldunen artean–. Euskarazko lehen itzulpen honek asko zor dio, noski, bi urte aurretik, 2004an, *Suite frantsesaren* eskuizkribua deskubritu izanari. Baina zerk ez dio zor Nemirovskyrenean deskubrimendu hari. Kontua da bigarren jaio-tza horren aurretik *Dantzaldiak* egin zuela famatu idazlea, 1930.enean argia ikusi zuen eleberriak.

Ez dezagun erabat ahitu, ordea, liburuaz aritzeko daukagun tartea. *Suite frantsesaren* aldean *Dantzaldia*



da nobela bat laburra, zuzena, kontatu nahi duen hori baino kontatzen ez duena: senar-emazte aberastu berri batzuek ez diote alabari parte hartzen utziko emango duten lehen dantzaldian. Hori kontatzen du eleberri laburrak, eta nola alaba mendekatzen den. Beste ezer ez. Zertarako. Nahikoa zaizkio 6 urteko haurrentzako liburuen neurrikoak diren letrekin osatutako 113 orrialde eskasak –kendu, bide batez, hitzaurrearenak–, Eider Rodriguezek “torturatzen zioten gaiak” definitu dituenak aletzeko: ama-alaben arteko harremanak, aberats berriak, diruaren likitsa, kultura judua eta mendekuaren

arma. Aletzeko, gainera, airean eramaten zaituen estilo batekin, arnasa hartzeko betarik apenas uzten dizun tentsio batekin, Rodriguez berriz: historian zehar herri, etnia, belaunaldi, zoko, geografia eta mende guztietan errepikatzen diren gertaera mitikoak pertsonalizatzen –Kampf senar-emazteak eta haien alaba Antoinette–, geografia zehatz batean –Parisen– eta kronologia jakin batean –1920ko hamarkadan– finkatzen. Labur, *Dantzaldiak* gogoia sartzen dizu Nemirovskyren gainontzeko guztiak irakurtzeko jarraian. Eta euskaraz ere badi-tugu mordoxka, manualetan-eta agertzen ez zaigun arren. ■

Aritz Galarraga



1 irakurri

2 hautatu

3 erabili

4 eman iritzia